

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

2021eko OHZren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2021eko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, honako hauen 2021eko ordainagiriak:

– Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko aldia: 2021eko urriaren 13tik abenduaren 17ra, biak barne.

B) Betearazte aldia, ehuneko 20ra arteko errekararekin: 2021eko abenduaren 20tik aurrera betearazte aldiko errekararekin, premiamendu murriztukoak eta premiamendu arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie banketxetako helbideratzeen altak edo aldaketak udaletxean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2021eko abenduaren 14an kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: Zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2021eko irailaren 22a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO